

DESPAREKOTASUNAREN ZIFRAK.**Jarduera honekin hau landuko dugu:**

GGI kontzeptua eta haren elementuak.

Desparekotasunaren eta bidegabekeriaren kontzeptuak.

Ezagutza eta hausnarketa, datuetatik abiatuta.

Garapen jasangarrirako 1.,2.,3.,4.,10. helburuak.

Iraupena

Saio bat.

Garapena

Ikasleei Giza Garapenaren Indizea (GGI) kontzeptua azaltzea, [infografia 1](#) erabiliz, munduko herrialdeak indize horren arabera nola sailkatzen diren ikus dezaten.

[Infografia 2](#) ikusaraztea, datuak komentatzeko.

Egin gogoeta

Amaitzean, zenbait galdera egingo ditugu, edukiari buruz hausnartzeko:

- Datu horiek ikusita, zein da lehen inpresioa?
- Azter dezagun desparekotasuna GGIaren hiru osagaien arabera: GGIaren hiru osagaietan gauza bera gertatzen al da?

Bizi-itzaropena

- Zer ondorio atera dezakegu bizi-itzaropenari buruz? Pentsatu zure aitona-amonetan. Ezagutuko zenituzkeen taulako herrialde jakin batzuetan bizi izan bazina?
- Bizi-itzaropena gaixotasunekin lotuta dago, besteak beste. Zer esaten digute edateko ura eskura izateari buruzko datuek? Eta saneamenduari eta ura eskura izateari lotutako hilkortasun-datuak? Erakusten dituzten osasun-baldintzek (mediku kopurua eta ospitaleko oheak) bizi-kalitate ona dutela pentsarazten digute?
- Eta gaixotuz gero? Zer erakusten dute medikuen edo ospitale-oheen datuek? GGI baxuko herrialdeetan gaixotzen den pertsona batek gure herrialdean izango lituzkeen aukera berdinak al ditu?

Eskolatzea

- Lau herrialde-taldeen eskolatze-indizeak ikustean, esan daiteke pertsona guztiek ikasteko aukera berdinak dituztela?
- Ba al dago alderik gizonen eta emakumeen artean?

Diru-sarrerak

- Giza garapen baxuko herrialdeen diru-sarrera; kalkulatu zenbat izango litzatekeen hilean. Diru kopuru hori egokia iruditzen zaizue bizitzeko?
- Munduko aberastasuna pertsona helduen artean nola banatzen den adierazten duen taula aztertuta, esan dezakegu aberastasunaren bidezko banaketa dagoela?
- GGiko beste osagaien datuek, ba al dute loturarik aberastasunaren banaketa horrekin?

ERANSKINA

1. taula. GGIaren osagaiak

GGIko sailkapena	Bizi-itxaropena jaiotzean (urteak)			Eskolatze-urteak batez beste			Nazio-sarrera gordina per capita(dolarrak)		
	guztira	emakumeak	gizonak	guztira	emakumeak	gizonak	guztira	emakumeak	gizonak
Oso altua	78,5	81,6	75,6	12,3	12,2	12,4	43.725	33.849	53.887
Altua	74,7	77,7	71,9	8,3	8,1	8,5	15.167	11.187	19.089
Ertaina	67,4	69,4	65,6	6,9	6,5	7,4	6.353	2.912	9.668
Baxua	61,3	63,4	59,6	4,9	4,1	5,7	3.009	1.907	4.107
Espainia	83	85,8	80,2	10,6	10,5	10,7	38.354	31.213	45.784
Datuen urtea	2021			2021			2021		

2. taula. Hezkuntza

GGIko sailkapena	Ikasleak irakasleko (lehen hezkuntza)
Oso altua	14
Altua	19
Ertaina	32
Baxua	42
Espainia	13
Datuen urtea	2010-19

3. taula. Osasuna

GGIko sailkapena	Medikuak	Ospitaleko oheak	Honako hauei esleitutako heriotza-tasa: Ur-, saneamenduetan higienez zerbitzu osasungaitzak	Edateko uraren hornidurarako oinarritzko zerbitzuak erabiltzen dituzten biztanleen ehunekoa	Oinarritzko saneamenduzerbitzuak erabiltzen dituzten biztanleen ehunekoa
Oso altua	30,4	52	0,3	% 99	% 98
Altua	16,5	31	1,9	% 94	% 85
Ertaina	7,3	7	18,6	% 90	% 60
Baxua	2,1	5	47,6	% 59	% 29
Espainia	40,7	30	0,2	% 100	% 100
10.000 pertsonako			100.000 pertsonako		
Datuen urtea	2010-18	2010-19	2016	2017	

Iturria: Giza Garapenari buruzko txostena. Nazio Batuen Garapenerako Programa 2022

4. taula. Diru-sarrerak

Munduko populazio heldua		Munduko aberastasunaren ehunekoa
milioiak	Ehunekoa	
62,5	% 1	% 48
627	% 12	% 38
1.791	% 34	% 13
2.818	% 53	% 1

Iturria: Credit Suisseren aberastasun globalaren txostena 2022

ABERASTASUNAREN BANAKETA

Jarduera honekin hau landuko dugu:

Desparekotasunaren eta bidegabekeriaren kontzeptuak.
Jarrera kritikoak bidegabekeriaren aurrean.
Ezagutza eta hausnarketa datuetatik abiatuta.
Garapen jasangarrirako 1.,10. helburuak.

Iraupena

Saio bat.

Hasi aurretik

Munduko aberastasunaren banaketaren datuak **populazio helduarentzat** kalkulatzeko dira, adingabeen eskuetan dagoen aberastasuna hutsaltzat har daiteke-eta. Baina pertsona horietako askok beren ardurapean adingabeak dituztenez, baliabide horiek pertsona gehiagoren artean partekatu behar izaten dira.

Munduko populazio heldua		Munduko aberastasunaren ehunekoa
milioiak	Ehunekoa	
62,5	% 1	% 48
627	% 12	% 38
1.791	% 34	% 13
2.818	% 53	% 1

Iturria: Credit Suisseren aberastasun globalaren txostena 2022

Ikasleak taldetan banatzeko, aberastasun global handiena duten bi populazio-taldeak elkartuko ditugu; izan ere, aberastasun handiena duen munduko biztanleriaren ehunekoa (% 1) ezin dugu inoiz gela baten neurriko talde batean islatu. Horrela, hiru talde geratuko lirateke, taula honen arabera:

Taldeak	Ikasgelako ikasleen ehunekoa	Aberastasunaren ehunekoa
A	% 13	% 86
B	% 34	% 13
E	% 53	% 1

Jarduerarako, 1.000 € taldeen artean banatu behar dira, taulan agertzen den proportzioaren arabera.

Kontuan hartuta C taldean jende askotxo egon daitekeela, bi talde egin daitezke hartatik, eta horrek erraztu egingo du talde bakoitzaren barruko elkarrikeria, nahiz eta, horrela eginez gero, dirua ere zatitu beharko litzatekeen.

Garapena

Banatu gela hiru (edo lau) taldetan. Azaldu hau:

“Imajinatu munduko aberastasuna eguneko 1.000 € direla 100 pertsona heldu bakoitzeko. Taldeetan, ehunekotan, 100 pertsona horiek ordezkatzeko ari zarete. Aberastasun horretatik 3 taldeen artean banatuko dugu dagokizuen zatia. Egin behar duzuen da taldekide bakoitzari dagokiona banatu. Talde barruan pentsatu eta komentatu behar duzue, nola biziko zinateketen egun batez egokitu zaizuen diruarekin. Kontuan hartu beharreko datu bat da pertsona helduak ordezkatzeko dituztela, eta, beraz, adingabeak ere gehitu beharko dituztela; hau da, zuen kasuan pentsatuz, zuen anai-arrebak”.

Taldeei kalkuluak egiteko tarte bat utzi ondoren, eta C taldetik (edo taldeetatik) hasita, eskatu esateko 1.000 € horietatik zenbat tokatu zaien, jendearen artean nola banatu duten, nola sentitu diren eta zertaz hitz egin duten.

Hau; narketarako jarraibideak:

Amaitutakoan, hitz egin ikasleekin, honelako galderak eginez:

- Zein da taldeak entzun osteko lehen inpresioa?
- Bidezkoa iruditzen zaizue diruaren banaketa? Ados zaudete egokitu zaizuenarekin?
- Diru gutxien zeneukaten taldeak, behar bezala bizi zaitezke horrekin? Diru gehien duten pertsonak pozik egon daitezke banaketa horrekin, baina bidezkoa al da?
- Bilatu banaketa modu bidezkoagoan egiteko modua. Zenbat egokituko litzaioke pertsona bakoitzari?
- Denak pozik al zaudete banaketa berriarekin? Zuen ustez, bidezkoagoa al da horrela?
- Norbaitek galdu egin duela sentitzen du?

Aberastasunaren banaketaren datuak munduko populazio helduarentzat kalkulatu daude. Baina pertsona horietako askok beren ardurapean adingabeak dituztenez, baliabide horiek pertsona gehiagoren artean partekatu behar izaten dira.

- Zuen ustez, beharrezkoa al da munduko aberastasunaren banaketa bidezkoagoa egitea? Zergatik?

Giza Garapenaren Indize baxuko herrialdeen sarrera nazional gordinaren taula aztertuz.

- Kalkulatu zenbat den hileko (30 egunekoa). Nolakoa litzateke urtean kopuru horrekin bizitzea? Kopuru egokia da? Zer gauzari egin beharko zenioke uko?
- Kalkulatu hilean zenbat ateratzen den Espainiako kantitaterako. Diru hori egokia iruditzen zaizue bizitzeko? Benetan islatzen al du gure herrialdearen egoera? Pertsona askok izaten al dute diru kopuru hori hilerok?
- Aberastasun globalaren banaketaren taulari begiratu, zer esan dezakegu banaketa horri buruz?

Espainiako nazio-sarrera gordinaren datuan pentsatuz, baliabide gehien dituen munduko biztanleriaren parte gara.

- Prest egongo zinatekete banaketa berri hori egiteko? Jabetzen al zarete munduko aberastasunaren banaketa bidezkoago batek zer ekarriko liokeen gure "ongizateari"?
- Horrenbestez, ulertu behar dugu justizia lortzeak gure "ongizatearen" zati bat alde batera uztea dakarrela?
- Gure egunerokotasunean pentsatuz eta "galera" horrek zer esan nahi duen ikusita, planteatu al duzue horrelakorik?